

AURKIBIDEA

1. Graduaren deskribapena

- Ikasketen deskribapena
- Sarrerako profila
- Ikasketen antolamendua
- Titulazioaren programa
- Mugikortasun programak
- Praktiak
- Gaitasunak
- Graduatuaren profila
- Laneratzea

2. Graduaren planifikazioa

3. Maiz egiten diren galderak

- Zein irizpideri jarraitu behar dio ikasleak unibertsitatean sartzeko izena ematerakoan?
- Nola egin daiteke gradu aldaketa lehen maila gainditu eta gero?
- Nola banatzen dira lehen mailako txandak eta taldeak?
- Egin al daiteke bi gradu aldi berean?

1. GRADUAREN DESKRIBAPENA

IKASKETEN DESKRIBAPENA

Ikus-entzunezko Komunikazioko Graduaren helburua da ikasleak prestatzea ikus-entzunezko proiektuak sortu eta hainbat formatutan gauzatzeko XXI. mendeko hedabideetako euskarrietan (Internet, bideojokoak, telebista eta irrati digitala, zinema, multimedia teknologia berriak eta telefonia mugikorra). Ikasketa planak modu orekatuan konbinatzen ditu prestakuntza teoriko eta praktikoa, arlo honetako profil desberdinei egokiturik. Fakultateak instalazio modernoak dauzka, eta bertan ikasleek hainbat proiektu praktikoko egiten dituzte, prestakuntza sendoa ematen dietenak. Gainera, enpresetako borondatezko praktikek eta atzerrian ikasteko truke programek haien prestakuntza osatzen dute.

SARRERAKO PROFILA

Titulazioan sartzeko baldintzak betetzeaz gain, Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasleak interesa izan behar du bai ikus-entzunezko produkzio klasikoaren aukera zabalean eta bai sektoreko proposamen berrietan (telebista, zinema, irrati, bideojokoak, Internet eta multimedia formatuak). Jakina, Internet eta teknologia berriak trebezia erabili behar ditu. Baloratzen da kultura maila ona izatea, hizkuntzak jakitea eta irudimentsua eta berritzailea izatea.

IKASKETEN ANTOLAMENDUA:

		Kredituak					
		Oinarrizko prestakuntza	Beste adar batzuetako oinarrizko gaiak	Espezifikoak	Hautazkoak	Gradu Amaierako Lana	GUZTIRA
Mailak	1.a	54	6				60
	2.a	24		36			60
	3.a			30	30		60
	4.a			30	18	12	60
	GUZTIRA	78	6	96	48	12	240

TITULAZIOAREN PROGRAMA

Ikus-entzunezko Komunikazioko Graduak lau urte irauten du eta lau maila ditu.. Lehen mailan lantzen dira komunikazioaren profesional guztiek izan beharreko oinarrizko gaitasun praktikokoak eta teorikoak, eta, beraz, maila honetako irakasgai guztiak nahitaezkoak dira, eta berberak dira titulazio honetan eta Kazetaritzako Graduan eta Publizitateko eta Harreman Publikoetako Graduan. Bigarren mailan hamar gaietatik sei berberak dira titulazio honetan eta Publizitateko eta Harreman Publikoetako Graduan, eta lau titulazio honetan eta Kazetaritzako Graduan. Hirugarren eta laugarren mailak ikus-entzunezko arloetako espezializaziora bideratuta daude, eta praktikokoak dira: hautazko irakasgaiak daude, eta haien artetik ikasleak aukeratu behar ditu bere interesei eta lortu nahi duen profil profesionalari ondoen doazkion bost irakasgaiak. Hautazkoak hartzean, ikasleak bi aukera ditu: bost irakasgai hartzea eskaintzen diren guztien artetik, edo "aipamen" bat egitea, hau da, hautazko bost irakasgaien multzo bat, gai jakin bati lotutakoak.

Ikus-entzunezko Komunikazioko Graduan bi "aipamen" eskaintzen dira:

- **Ikusizkoen Ikasketak** aipamena zuzendua dago ikusizko kulturaren adierazpen ugarietan espezializatu gura duten ikasleei, hau da, merkatuak eskatzen dituen ikus-entzunezko formatu berritzaileak sortzen ikasi gura duten horiei. Bost gai hauek ditu:: Diskurtso Dokumentalaren Formak, Estetika Korrante Garaikideak, Zinema Espainiarra: Zinema Nazionalak, Nortasunak eta Erbesteak, Irudia, Generoa eta Nortasuna eta Ikus-entzunezko Diskurtsoak eta beren Dimentsio Mitikoa.
- **Multimedia Produkzioa eta Errealizazioa** aipamena zuzenduta dago merkatuak eskatzen dituen ikus-entzunezko eta multimedia formatu berrien sorkuntza, diseinu eta ekoizpenean espezializatu nahi duten ikasleei. Bost gai hauek osatzen dute: Zuzendaritza Artistikoa, Dokumentalen Errealizaziorako Tailerra, Diseinu Grafikoa eta Multimedia Inguruneak, Bideosormena eta Bestelako Jarduera Esperimentalak eta Audio Postprodukzioa.

Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua euskara hutsean edo gaztelania hutsean egin daiteke, eta gainera gai batzuk ingelesez eskaintzen dira. Era berean, borondatezko praktikak egin daitezke enpresetan eta ikasleek beste unibertsitate batzuetan ikasteko aukera dute.

Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua lortzeko, ikasleak Gradu Amaierako Lana egin behar du. Bi aukera ditu: ikerketa lan indibidual eta orijinala egitea, edo ikus-entzunezko proiektu bat diseinatu eta egitea.

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Maila bat atzerrian egiteak, ikasleari edukietan sakontzeko eta hizkuntza hobetzeko aukera emateaz gain, balio erantsia ematen dio haren curriculum profesionalari. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatearen helburuetako bat da gure ikasleen eta beste ikastegi batzuetako ikasleen arteko trukeak sustatzea, honako programa hauen bidez: SICUE (estatuaren barruan), Erasmus+ (Europa), UPV/EHU-AL (Latinoamerika) eta beste norako batzuk (Amerikako Estatu Batuak, Errusia, Kanada eta Asia). Gaur egun hitzarmenak dauzkagu mundu osoko hirurogei fakultaterekin baino gehiagorekin, eta trukerako ehun plaza baino gehiago eskaintzen dizkiegu gure ikasleei. Fakultatea lanean dago hitzarmen gehiago egiteko eta plaza gehiago kudeatzeko, Europako Unibertsitate Eremura egokitzeke planaren barruan.

PRAKTIKAK

Gure fakultatean ikastearen beste abantailetakoa bat da gradua amaitzen duten bitartean ikasleek aukera dutela ingurune profesionalarekin harremanetan jartzeko. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak aukera ematen die ikasleei borondatezko praktikak egiteko enpresa eta erakunde publiko eta pribatuetan. Programa honetan 500 destino baino gehiago eskaintzen dira. Praktikak ikasketekin batera egin daitezke, 450 ordu dira gehienez eta 6 ECTS kredituekin baliozkotu daitezke (hau da, hautazko irakasgai batekin).

GAITASUNAK

- **Teoria, kontzeptu eta metodologiaren esangura eta garrantzia ulertzea ikus-entzunezko komunikazioaren diziplinari buruzko testuinguruan.**
- **Teoria eta tresna metodologikoak praktikan aplikatzea hainbat komunikazio prozesu eta testuinguruan.**
- **Bide irudimentsuak sortu, garatu eta aplikatzea ikus-entzunezko komunikazioaren arazoak konpontzeko.**
- **Gertaerak, prozesu sozialak, testuak eta komunikazio proiektuak aztertu, interpretatu, azaldu eta kritikoki baloratzea.**
- **Proiektuak, eta lanaren eta ikerketaren lorpenak eta emaitzak komunikatu eta azaltzea, jario onean eta modu eraginkor eta argumentatua, hainbat genero, formatu eta hedabidetan.**
- **Lan taldeetan parte hartzearekin, eta lan taldeen kudeaketa eta optimizazioarekin lotutako abileziak eta trebeziak garatzea, eta erabakiak hartzeko eta emaitzak ebaluatzeko irizpide ondo oinarrituak aplikatzea.**
- **Trebeziak aplikatzea eta teknika, teknologiak eta baliabideak erabiltzea edukiak eta komunikazio prozesuak eta ikus-entzunezko informazioa garatzeko.**
- **Helburuak zehazteko eta ekintzak planifikatzeko estrategiak diseinatzea, edukiak eta ikus-entzunezko komunikazio prozesuak garatzen.**
- **Jakintza eta esperientzia eskuratzea ingurune eta errutina profesionaletan, ikus-entzunezko komunikazio eta informazioaren arloan merkatuak eskatzen dituen profil profesionalen lanaren errealitate hurbiltzeko.**
- **Informazioa eta dokumentazioa bilatu, aukeratu, hierarkizatu eta aztertzea hainbat motatako iturriak erabiliz, eta haien edukia egokitzuz narrazio molde eta estrategia desberdinetara.**

GRADUATUAREN PROFILA

Ikus-entzunezko Komunikazioko graduatuak, titulazioari dagozkion gaitasunak gain, prestakuntza espezializatu eta teknikoa lortzen du ikus-entzunezkoak sortzeko, ekoizpen osoa diseinatzeko eta aholkularitza, antolaketa eta zuzendaritza lanetarako, edozein dela ere ingurune edo euskarri teknologikoa edo ikus-entzunezkoa. Gainera, prest dago etengabe bere burua eguneratzeko, bai teknologian eta bai eduki berrien sorkuntzan. Erraztasun handia dauka lanbidean gertatzen diren aldaketetara egokitzeko.

LAN AUKERAK

Ikus-entzunezko Komunikazioko graduatuak hainbat profil profesional izan ditzake. Lau arlo nagusi hauetan koka daitezke:

- **Ikus-entzunezkoen zuzendaria, gidoilaria eta errealizadorea:** profesional hau espezializatua dago ikus-entzunezko hedabideetako era guztietako produktu eta formatuen gidoigintza, zuzendaritza eta errealizazio lanetan (zinea, telebista, bideosorkuntza, bideojokoak, irratia, publizitatea, infografia, internet eta teknologia berriak).
- **Ikus-entzunezkoen ekoizlea edota kudeatzailea:** profesional hau ikus-entzunezko produktu eta formatuen ekoizpen, kudeaketa eta merkaturatzean espezializatuta dago. Ikus-entzunezkoen eta multimedia ekoiztetxeetako zuzendaria ere izan daiteke.
- **Ikus-entzunezkoen ekoizpenaren eta postprodukzioaren diseinua:** aditu honek diseinatzen ditu soinuari, irudiari eta grafismoari dagozkion alderdi guztiak ikus-entzunezko ekoizpenaren fase guztietan. Era berean, profesional honek lan egin dezake interneterako, bideojokoetarako eta ingurune digitalerako ekoizpenak sortzeko ingurune interaktiboetan ere.
- **Ikusizkoen ikasketetako ikertzaile, irakasle eta aditua:** ikus-entzunezko komunikazioko gertakariak eta prozesuak ikertzen eta analizatzen dituen espezialista. Ikus-entzunezkoen sektoreko politiken eta ekonomiaren analista, bai estatu mailan eta bai maila globalean. Goi mailako irakaskuntzan edo irakaskuntza ertainean irakasle, komunikazio gaiak eta ikus-entzunezkoen teknologia berriak irakasten.

2. IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOKO GRADUA

1. MAILA

Irakasgai komunak honako graduarekin:
Kazetaritzako Gradua
Publizitateko eta Harreman Publikoetako Gradua

- Berrien Idazkera Prentsan (1.LH)
- Euskararen Erabilerak Komunikabideetan (euskarako taldea) (1.LH)
- Gaztelaniaren Erabilerak Komunikabideetan (gaztelaniako taldea) (1.LH)
- Ikus-entzunezko Hizkuntza (1.LH)
- Ingurune Ekonomikoaren Analisia (1.LH)
- Komunikazio Komertziala, Korporatiboa eta Institutuzionala (1.LH)
- Gaur Egungo Munduaren Historia (2.LH)
- Ikus-entzunezko Sormen Teknikak (2.LH)
- Informazio Generoak (2.LH)
- Komunikazioa eta Publizitatea: Konbentzitzeko Estrategiak (2.LH)
- Komunikazioari Aplikaturako Estatistika (2.LH)

2. MAILA

Irakasgai komunak honako graduarekin:
Kazetaritzako Gradua
Publizitateko eta Harreman Publikoetako Gradua

- Nazioarteko Harremanak (1.LH)
- Ziberkazetaritzako Idazkera (1.LH)
- Dokumentazio Iturrien Kudeaketa (2.LH)
- Informazioaren Zuzenbidea (2.LH)

Irakasgai komunak
Publizitateko eta Harreman Publikoetako Graduarekin

- Komunikazioko Ikerketa Metodoak (2.LH)
- Pentsamendu Politikoaren Historia (2.LH)

Ikus-entzunezko Komunikazioko Graduak
irakasgai espezifikoak

- Komunikazio Sistemaren Egitura (1.LH)
- Ikus-entzunezko Narratiba (1.LH)
- Ikus-entzunezko Sormen Prozesuak (1.LH)
- Komunikazioaren Teoriak (2.LH)

3. MAILA

NAHITAEZKOAK

- Errealizazioa I (1.LH)
- Gidoigintza I: Fikzioa (1.LH)
- Ikusizko Formen Analisia (1.LH)
- Errealizazioa II (2.LH)
- Gidoia II: Ez-fikziozko Programak (2.LH)

Mugikortasun programak:
ERASMUS, EHU-AL, BN
eta SICUE

Borondatezko praktikak:
hautazko 6 krediturekin
baliozkotzeko aukera

Beste jarduerak batzuetatik
kreditu onarpena:
gehinez hautazko 6
kreditu

HAUTAZKOAK (AUKERATZEKO 5)

- Bitartekaritzak eta Komunikazioa (1.LH)
- Euskararen Arauak eta Erabilerak (euskarako taldea) (2.LH)
- Pertsona Arteko eta Taldeko Komunikazioa (2.LH)
- Programazio Estrategiak (2.LH)

IKUSIZKOEN IKASKETAK AIPAMENA

- Diskurtso Dokumentalaren
Formak (1.LH)
- Estetika Korrante Garaikideak
(2.LH)

MULTIMEDIA PRODUKZIOA ETA ERREALIZAZIOA AIPAMENA

- Zuzendaritza Artistikoa (1.LH)
- Dokumentalen Errealizaziorako
Tailerra (2.LH)

4. MAILA

NAHITAEZKOAK

- Ekoizpenaren Kudeaketa (1.LH)
- Zinema Klasikoaren Historia (1.LH)
- Irrati Ekoizpena eta Errealizazioa (1.LH)
- Komunikazioaren Egungo Joerak (2.LH)
- Zinema Modernoaren eta Garaikidearen
Historia (2.LH)

- Zinema Espainiarra: Zinema
Nazionalak, Nortasunak eta
Erbesteak (2.LH)
- Irudia, Generoa eta Nortasuna
(2.LH)
- Ikus-entzunezko Diskurtsoak eta
beren Dimentsio Mitikoa (1.LH)

- Audio Postprodukzioa (1.LH)
- Bideo-sormena eta Bestelako
Jarduerak Esperimentalak (1.LH)
- Diseinu Grafikoa eta Multimedia
Inguruneak (2.LH)

- Internet eta Kultura Industriak (1.LH)
- Komunikazioa Euskaraz: Hedabideetarako Hizkuntza Estrategiak
(euskarako taldea) (1.LH)

HAUTAZKOAK (AUKERATZEKO 3)

Gradu-Amaierako Lana

(1.LH) = LEHENENGO LAUHILEKOA (2.LH) = BIGARREN LAUHILEKOA

3. Maiz egiten diren galderak

- Zein irizpideri jarraitu behar dio ikasleak unibertsitatean sartzeko izena ematerakoan?

Ikasleari aholkatzen diogu lehen aukera moduan jar dezala gehien interesatzen zaion gradua, eta jar ditzala bigarren eta hirugarren aukera moduan lehen maila berbera daukaten graduak. Modu horretara, ikasleak ez badu lortzen matrikulatzea lehenengo aukeran hartutako graduan, antzeko gradu batean egin dezake eta graduz aldatzea eskatu lehen maila bukatu eta gero. Esate baterako, ikasle batek Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi nahi badu eta ez badu lortzen plazarik, eta bigarren aukera moduan Publizitatea eta Harreman Publikoak edo Kazetaritza jarri badu, gradu horretako matrikula egin dezake eta espedientea lekuz aldatzea eskatu lehen maila bukatu eta gero. Gauza bera egin daiteke Gizarte Zientzien arloko graduen kasuan, hau da, Soziologia eta Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa.

- Nola egin daiteke gradu aldaketa lehen maila gainditu eta gero?

Espedientea lekuz aldatzea eskatzeko (graduz aldatzea) bi baldintza bete behar dira: batetik, ikasleak lehen maila osoa izan behar du gaindituta eta, bestetik, eskarien kopurua ezin da izan ikasketak egiten hasteko plaza kopuruaren % 10 baino handiagoa. Eskarien kopurua handiagoa izango balitz, ikaslearen batez besteko notaren arabera esleituko lirateke plazak (graduak abian daramatzan lau urteetan ez da bete plaza kopurua, hau da, eskatu diren leku aldaketa guztiak onartu dira).

- Nola banatzen dira lehen mailako txandak eta taldeak?

Ikus-entzunezko Komunikazioko lehen mailako eskolak, Kazetaritzakoak, eta Publizitate eta Harreman Publikoetakoak bi txandatan ematen dira, goizez eta arratsalde. Ikasleak, matrikula egitean, lehenengo eta behin aukeratzen du ikasketak zein hizkuntzatan egin nahi dituen (euskara edo gaztelania) eta ondoren txanda (goizez edo arratsalde). Goizeko txandan gaztelaniako hiru talde daude eta euskarako bat; arratsaldekoan, berriz, euskarako bat eta gaztelaniako beste bat. Soziologiako eta Politika Zientzia eta Gestio Publikoko eskolak goizez baino ez dira ematen eta bi talde daude, bat euskaraz eta beste bat gaztelaniaz. Ikasleak hizkuntza aukeratu eta gero txanda eta taldea esleitzen zaizkio. Ikasleak irakasgairen bat ingelesez egin nahi badu, beste talde batera joan beharko da eskoletara, 61 taldera hain zuzen ere. Talde horren ordutegia eta ikaslearen taldearen ordutegia bateragarriak izango dira. Txanda aukeratzen da matrikula egiteko deiaaren arabera (nota); hori dela eta, txanda aukeratzen duten azkenek itxita aurki ditzakete taldeak edo txandak.

- **Egin al daiteke bi gradu aldi berean?**

Bai, ikasketak aldi berean egiteko eskaria aurkeztu behar du ikasleak lehen maila amaitu eta gero. Gure ikastegiko ikasketa planen diseinua dela eta, bi urte gehiago eginda bigarren gradua amaitu daiteke, bai Komunikazioaren arloan bai Gizarte Zientzien arloan

GRADUEN ARTEAN BALIOZKOTU DAITEZKEEN IRAKASGAIEN KOPURUA GEHIENERA

Oharra: ikasketak gaztelaniaz egiten dituztenek bi irakasgai kendu behar dituzte taulan agertzen diren gaitetik, irakasgai bi horiek UPV/EHUko Euskararen Plan Gidarikoak baitira

GRADUAK	Kazetaritza	Publizitatea eta Harreman Publikoak	Ikus-entzunezko Komunikazioa	Soziologia	Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa
Kazetaritza	Xxxxxxxxxx	16 + 5* 16+1*	18	8	9
Publizitatea eta Harreman Publikoak	16 + 5* 16+1*	Xxxxxxxxxx	18	7	8
Ikus-entzunezko Komunikazioa	18	18	xxxxxxxxxxxx	8	9
Soziologia	8	7	9	xxxxxxxxx	19
Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa	9	8	2	19	xxxxxxxxxxxxx

* Ikasleak aukeratzen baditu Komunikazioaren Arloko Zuzendaritzako aipameneko 3. eta 4. mailako hautazko bost irakasgaiak, Kazetaritzak eta Publizitatea eta Harreman Publikoek partekatzen duten aipamenekoak, guztira 21 irakasgai izango dira berberak bi graduetan. "Pentsamendu Politikoaren Historia" irakasgaia hautazkoa da Kazetaritzan eta nahitaezkoa bai Publizitatea eta Harreman Publikoetan bai Ikus-entzunezko Komunikazioan.

